

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

ELTZIEGOKO UDALA

Behe edo bigarren mailako sareko ur horniduraren gaineko eskumena Arabako Errioxako ur partzuergoari eskuordetzea

Iragarki honen bidez jakinarazten da udalbatzak, 2020ko otsailaren 28an egindako ohiko bilkuran, eta bertaratutako zinegotziek, legezko zinegotzi kopuruaren gehiengo osoa biltzen dutenek, aho batez honako erabaki hau hartu dutela:

BEHE EDO BIGARREN MAILAKO SAREKO UR HORNIDURAREN GAINEKO ESKUMENA ARABAKO ERRIOXAKO UR PARTZUERGOARI ESKUORDETZEA

1998ko azaroaren 14ko osoko bilkuran, hasiera batean onetsi zen Eltziegoko udalerria Arabako Errioxako Urkideztari atxikitzea eta horren estatutuak.

Arabako Errioxako Urkideztaren estatutuen 6. artikulua ezartzen du partzuergoaren helburuen artean hauek daudela:

1. Lehen mailako sareetako ur horniduraren eta saneamenduaren azpiegitura ezartzea eta ustiatzea, eta dagozkion zerbitzuak ematea, hori guztia baldintza egokietan eta indarrean dagoen araudiaren arabera.

2. Hala erabakiz gero, partzuergoak ur zikloaren beste fase batzuetara zabaldu ditzake bere helburuak, erakundeek hala eskatzen badute eta alde zuzenetik haiekin hitzarmena sinatzen bada.

Euskadiko Toki Erakundeei buruzko apirilaren 7ko 2/2016 Legearen 104. artikulua ezartzen du udalerriek eta gainerako toki erakundeek partzuergoak eratu ahal izango dituztela beste administrazio publiko batzuekin interes komuneko xedeetarako, baldin eta haien helburua tokiko zerbitzu publikoak emateko lankidetzak ekonomikoa, teknikoa eta administratiboa bada. Era berean, beste administrazio publiko batzuek eta irabazi asmorik gabeko erakunde pribatuek ere parte hartu ahal izango dute partzuergo horietan, baldin eta erakunde horiek osatzen dituzten administrazio publikoen interesekin bat datozen interes publikoko helburuak badituzte. Partzuergoa izango da udalerrien gutxieneko eta nahitaezko zerbitzuak modu partekatuan kudeatzeko hobetsiko den formuletakoa bat, beharrezkoa jotzen denean udalerrien aldetik zerbitzuaren egiazko kostuak edo kalitate estandarrak hobetuko dituen erakunde mailako konponbide bat eskaintzea, lege honetan aurreikusitakoaren eta dagokion foru araudian zehaztuko denaren arabera.

Hauek ikusi dira: 2020ko otsailaren 17an idazkari-kontuhartzaileak egindako txostena, Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 25. eta 26. artikulua, Euskadiko Toki Erakundeei buruzko apirilaren 7ko 2/2016 Legearen 2., 15., 17., 93. eta 94. artikulua, eta Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren urriaren 1eko 40/2015 Legearen 9. artikulua eta hurrengoak.

Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legeak 22.2.p) eta 47.2.h artikuluetan ezarritakoarekin bat etorritik, udalbatzak gehiengo osoz erabaki hau hartu zuen:

Lehenengoa. Behe edo 2. mailako sareko ur horniduraren kudeaketa Arabako Errioxako ur partzuergoari eskuordetzea.

Bigarrena. Arabako Errioxako ur partzuergoari baldintza hauek ezartzea behe edo 2. mailako sareko ur horniduraren zerbitzua eskuordetzeko:

1.- Partzuergoak bere esku izango du Arabako Errioxako ur partzuergoaren estatutuetako 7. artikuluan jasotzen diren ahalmen guztiak baliatzea.

2.- Arabako Toki Ogasunak arautzen dituen 41/1989 Foru Arauak ezarritako baldintzen arabera, Eltziegoko Udalak Arabako Errioxako ur partzuergoari eskualdatzen dio partzuergoak bere gain hartutako zerbitzuak emateagatik ezarritako tasak kudeatu, likidatu eta biltzeko zerga ahala.

3.- Arabako Toki Ogasunak arautzen dituen 41/1989 Foru Arauak ezarritako baldintzen arabera, Eltziegoko Udalak Arabako Errioxako ur partzuergoari eskualdatzen dio partzuergoak bere gain hartutako zerbitzuak emateagatik ezartzen dituen prezio publikoak ezartzeko, eskatzeko, kudeatzeko, likidatzeko eta biltzeko zerga ahala.

4.- Indarrean den sektore legediak ezarritako moduan, Eltziegoko Udalak Arabako Errioxako ur partzuergoari eskualdatzen dio autonomia erkidegoak uragatik ezarritako kanona kudeatu eta biltzeko zerga ahala.

5.- Helburu hori betetzeko, eskuordetutako eskumena xedapen hauetan ezarritako moduan baliatuko da: Arabako Errioxako ur partzuergoko hondakin uren hornidura eta tratamendu zerbitzuak ematea arautzen duen indarreko ordenantza (2020ko otsailaren 24ko ALHAO, 22. zk.) eta partzuergoak onartutako hondakin uren isurketa eta arazketa arautzen duen araudia (2004ko azaroaren 12ko ALHAO, 131. zk.; 2008ko urtarrilaren 7ko ALHAO, 3. zk.; 2005eko otsailaren 4ko ALHAO, 15. zk.; eta 2006ko martxoaren 22ko ALHAO, 34 zk.).

6.- Eskuordetzaz emandako zerga ahala baliatuko da xedapen honen arabera: Arabako Errioxako ur partzuergoak ematen dituen ur horniketako eta hondakin uren tratamenduko zerbitzuen tasa arautzeko indarrean den zerga ordenantza (ALHAO, 22 zk., 2020ko otsailaren 24koa).

7.- Helburu hori betetzeko, eta Datu Pertsonalak Babesteari eta Eskubide Digitalak Bermatzeari buruzko abenduaren 5eko 3/2018 Lege Organikoarekin bat etorritik, Eltziegoko Udalak baimena ematen dio Arabako Errioxako ur partzuergoari sarbidea izan dezan ur hornidurako eta hondakin uren tratamenduko zerbitzuei buruzko udal zerbitzuen erabiltzaileen fitxategian diren datu pertsonaletara, eskuordetzaz emandako zerbitzu publiko hori baliatzeko ez beste ezertarako; datuok ezingo zaizkie jakitera eman beste pertsona batzuei, eta datuen tratamenduaren arduradunak oinarrizko mailako segurtasun neurri bat ezarri beharko du.

8.- Eskuordetzaz emandako eskumena baliatuko da xedapen hauetan ezarritako moduan: ur horniketako eta hondakin uren tratamenduko zerbitzuak arautzeko Arabako Errioxako ur partzuergoak eman eta indarrean den ordenantza (2004ko irailaren 10eko ALHAO, 105zk.; eta ordenantzaren ondorengo aldaketak) eta hondakin urak isuri eta araztea arautzeko partzuergoak onartu eta indarrean den araudia (2004ko azaroaren 12ko ALHAO, 131 zk.; eta araudiaren ondorengo aldaketak).

9.- Eltziegoko Udalak konpromisoa hartzen du ur hargune berrietarako lizentzietan ur partzuergoaren jarraibidea jakinarazteko, agintzen duena kontagailuak nahitaez ezarri behar direla eraikinen atarrietan edo lurzati hesituen nahiz pabilioi eta upategien kanpoaldean, halako moldez non kontagailua irakurtzeko ez den jabe go pribatuetan sartu beharrik izango.

10.- Arabako Errioxako ur partzuergoak ur hornidurako eta tratamenduko sareen kontserbazioa eta mantentze lanak kudeatuko ditu. Eltziegoko Udala izango da, ur horniketako eta tratamenduko sareen titular den aldetik, sare horiek berritzeko ardura izango duen entitatea.

11.- Eltziegoko Udalak konpromisoa hartzen du Arabako Errioxako ur partzuergoarekin elkarlanean aritzeko eskuordetzaz emandako zerbitzuaren kudeaketa, kontrol, zainketa eta mantentze lanetan.

12.- Erabaki honek eragina izango badu, Arabako Errioxako ur partzuergoak onartu egin beharko du eskuordetza.

13.- Eltziegoko Udalak edozein unetan baliogabetu dezake eskuordetze hori, Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren urriaren 1eko 40/2015 Legearen 6. artikulua arabera.

Hirugarrena. Erabaki hau eta estatutuen hasirako onespina Arabako Errioxako Urkideztari jakinaraztea.

Laugarrena. Eskuordetze honen edukia ALHAOn argitaraztea.

Bosgarrena. Alkateari ahalmena ematea erabaki hau gauzatzeko behar den agiri oro sinatzeko.

Ebazpen honek amaiera ematen dio administrazio bideari, eta, haren aurka, aukerako berraztertze errekurtsua aurkez dakioke udal osoko bilkurari, hilabeteko epean, jakinarazpen hau jaso eta hurrengo egunetik hasita, hala ezarrita baitago Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 123. eta 124. artikuluetan. Bestela, administrazioarekiko auzi errekurtsua aurkez daiteke zuzenean, demandatzailearen aukeran, demandatzaileak bizilekua duen barrutiko edo udal honen barrutiko administrazioarekiko auzien epaitegian, bi hilabeteko epean, jakinarazpen hau jaso eta hurrengo egunetik zenbatzen hasita, Jurisdikzioari buruzko uztailaren 13ko 29/1998 Legearen 46. artikulua arabera. Aukerako berraztertze errekurtsua aurkeztea erabakitzen bada, ezin izango da administrazioarekiko auzi errekurtsorik aurkeztu, harik eta berraztertze errekurtsua berariaz ebatzi edo errekurtsu hori isilbidez ezetsi arte. Nolanahi ere, zure alde egiteko bidezkoagotzat jotzen duzun beste edozein errekurtsu aurkez dezakezu.

Eltziego, 2020ko maiatzaren 2a

Alkatea

LUIS ALDAZABAL RUIZ DE VIÑASPRE